

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	SISTEMA MIKROINFORMATIKOAREN FUNTZIONALITATEEN USTIAPENA (zeharkakoa)	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0853		
Lanbide-arloa	INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
Lanbide-eremua	Sistemak eta telematika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Sistema mikroinformatikoen muntaketa eta konponketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Sistema eragileen instalazioa eta konfigurazioa	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Sistema eragileak instalatzea eta eguneratzea (zeharkakoa)	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0219_2 OINARRIZKO SOFTWAREA SISTEMA MIKROINFORMATIKOETAN INSTALATZEA ETA KONFIGURATZEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Sistema eragileek eskaintzen dituzten aplikazioak erabiltzea sistema ustiatzeko, zehaztapan teknikoei jarraiki.

EI1.1 Sistema eragileak eskaintzen dituen aplikazioak erabiltzea eta ezaugarriak deskribatzea, sistema erabiltzeko eta ustiatzeko zehaztapan teknikoak eta premia funtzionalak kontuan izanik.

EI1.2 Sistema eragileak eskaintzen dituen aplikazioak erabiltzea diskoa eta fitxategi-sistema antolatuzko, jasotako zehaztapan espezifikoen arabera.

EI1.3 Uneko sistema eragileek dituzten irisgarritasun-aukerak baliatzea desgaitasunak dituzten pertsonentzat ingurune irisgarriak konfiguratzeko, zehaztapan teknikoaren eta funtzionalen arabera.

EI1.4 Lan-ingurunearen aukerak konfiguratzeko sistema eragileak eskaintzen dituen aplikazioak eta erremintak erabilita, jasotako zehaztapanen eta erabilera-premien arabera.

EI1.5 Sistemarekin konektatutako periferikoen funtzionalitateak ustiatzeko sistema eragileak eskaintzen dituen aplikazioak deskribatzea, erabilera-premien arabera.

EI1.6 Sistema mikroinformatikoak ematen dituen oharrak eta mezuak sailkatzea garrantzia eta kritikotasuna bereizteko, eta erantzuteko prozedurak aplikatzea jasotako argibideen arabera.

EI1.7 Horri buruzko dokumentazio teknikoa interpretatzea, sektorean gehien erabiltzen den atzerriko hizkuntzan argitaratuta egonda ere, eta lagungarri moduan erabiltzea sistema eragilearen maneian.

Edukiak

1. Sistema eragilearen utilitateak.

- o Ezaugarriak eta funtzioak.
- o Lan-ingurunearen konfigurazioa.
- o Fitxategi-sistemen kudeaketa eta administrazioa.
- o Baliabideen eta prozesuen kudeaketa.
- o Fitxategien edizioa eta kudeaketa.

2. Diskoaren eta fitxategi-sistemaren antolaketa.

- o Fitxategi-sistema.
 - FAT.
 - NTFS.
- o Biltegiatze-unitate logikoak.
- o Datuak egituratzea.
 - Karpetak edo direktorioak.
 - Fitxategiak.
- o Fitxategi-motak.
- o Sistemaren fitxategiak eta karpetak.
- o Fitxategi-arakatzaileren konfigurazioa eta egitura.
- o Eragiketak fitxategiekin.
 - Sortzea.
 - Kopiatzea eta mugitzea.

- Ezabatzea eta berreskuratzea.
- Fitxategi-bilaketa.

3. Irisgarritasun-aukeren konfigurazioa.

- Pantailan bistaratzea ahalbidetzeko aukerak.
- Kontalarien erabilera.
- Teklatua edo sagua erabiltzea errazagoa izateko aukerak.
- Ahots-ezagutzea
- Alternatiba bisualak eta testu-alternatibak erabiltzea entzumen-arazoak dituzten pertsonentzat

4. Sistema informatikoaren konfigurazioa.

- Lan-ingurunearen konfigurazioa.
 - Ingurune bisualaren pertsonalizazioa.
 - Ekipoaren eskualdeko ezarpenak.
 - Oinarrizko periferikoen pertsonalizazioa.
 - Beste batzuk.
- Inprimaketa-kudeatzailea.
- Gailu-kudeatzailea.
- Sistemaren babesa.
- Sistemaren konfigurazio aurreratua

5. Sistema-tresnen erabilera.

- Diskoaren desfragmentazioa.
- Segurtasun-kopiak.
- Disko-garbiketa.
- Atazak programatzea.
- Sistema leheneratzea.

6. Baliabideen eta prozesuen kudeaketa.

- Sistemaren oharrak eta mezuak.
- Sistemaren gertaerak.
- Sistemaren performantzia.
- Ataza-administratzailea.
- Sistemaren erregistroaren editorea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0852: Sistema eragileak instalatzea eta eguneratzea.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Sistema mikroinformatikoen muntaketa eta konponketa